

AMA BIRJIÑAREN

SORTZE GARBI TA KITSUREN
IZPIRIK GABEKO BISITETAKO

Kongregazio'ko neskatxentzat

ESKU-LIBURUA.



Liburutegia

9

ATV

18926

1931.—TOLOSA'N
Lopez-Mendizabal'en Etxean

KONGREGAZIO'KO NESKATXENTZAT
ESKU-LIBURUA



ALPHABETICAL INDEX



M- 8546
R- 36249
ATV
18926

AMA BIRJIÑAREN

SORTZE GARBI TA KUTSUREN IZPI-
RIK GABEKO BISITETAKO

Kongregazio'ko neskatxentzat

ESKU-LIBURUA.

EGILEARENA DA

IRUGAREN EGIÑALDIA



1931.—TOLOSA
Lopez-Mendizabal'en Etxean.

Vitoria 10 de Abril de 1913.

Nihil obstat

Censor

Liborius Aspiazu.

Vitoriae 11 Aprilis anni 1913.

Imprimatur,

† JÓSEPH, *Episcopus Victoriensis.*

Sr. D. Eusebio López, editor.

TOLOSA.





AMA BIRJIÑAREN

sortze txit garbiko Kongregazioan
dauden gazteai.

Zeruko Ama Birjiñak, bere baratz edera ugaritu ta indartzerara deitzen dizute. Oroi zaitezte Jaungoikoak egin gaituala, Pablo Santuak esaten digun bezela, garbiak izateko: eta ez dala gauz ederragorik zuentzat Zeruko aingeruen antzeko garbiak ontasunaren bidez munduan izatea baño.

Badakizute gañera munduko gaiztakeriko bideak lasaitu dirala, ta zuen biotz gaztea, zuen garbitasuna loitu ta galtzeko, zori txar asko sortuko zaizkitzutela, etsayak zuen kaltez beti gogor lan egingo dulako: argatik bada, zuek, Ama Birjiñaren alaba maiteak, alegindu bear dezute zuen biotza zuzentzen,

zuen asmoak txukuntzen, zuen go-
goak garbitasuneko bide edere-
tatic eramaten, griña itxusi guztiak
alde batera utzirik.

Bañan ontako onena alkartzea
da. Batek bakarrik asko egin leza-
ke, bañan besteai alkartuaz are
geyago egingo du. Batu, ba zuen
indarrik guziok alkarganatuaz, ba-
tean guzion Amari otoi egiñaz,
aizpa guzien etzayari obeto arpegi
emateko.

Zuen sinismenak, zuen izen o-
nak, zuen garbitasunak ortara
beartzen dizute.

Euskaleriko gazteak, Zeruko
Amaren alaba maiteak, zuen Ama
oni zeren begiak itzuli itzazute;
utzi alde batera munduko ergelkeri
ta txaldankeri guziak, eta onela,
mundu ontan ondo ikusiak izan
ondoren, Zeruan, guzion Ama mai-
tearen aldamenean arkituko zera-
te betikotasun guzirako. Alaxen.

*Kongregazioan dauden neska-
txen egin bearak.*

1. Ibero, bere agiriak esaten duen egunean, Ama Birjiñari agertu-aldi bat egingo dio, albadu Kongregazioko elizkizuna egiten dan elizan, eta an ezin badu bere etxean.

2. Ontarako esan bear ditu bost Aita gure, Agur Mari eta Glori, Letania eta Salbea, eskatuaz bere anima beti garbia euki dezala. Letania ez dakitenak, bere ordez bi Salbe esango dituzte.

3. Eskatu bear du bere izaera aukeratu bear duen garayan berrari dagokion biderik onena artzea; eskatu bear du pekatuan sarturik, bide gaiztotik dijoaztenen alde; eskatu bear du Kongregazio ontako ta bear estuan arkitzen diran aizpen alde, baita ere beretatik il diranen alde, eta azkenik gure Erlijio ona geyago ta geyago zabaldu dedin.

4. Ama Birjiñaren garbitasun

berdingabearen izenez ezezatu bear ditu iru Agur Maria beren Gloria-kin; beste kopradi edo Alkartasun batean sartua badago eta an ere Agur Mari oek ezezutzen baditu naikoa da ori egitean Kongregazio onen asmoetara gogoa jartzea, eta beste gabe bear au betetzen da.

5. Pekatuak aitortu ta Jaunartu bear du ilean bein al bada Kongregazioak ortarako izendatuta daukan egunean eta beste aizpakin batean; bañan ezin balezake, edozein egunetan, aste eguna izanaren.

6. Bere eginkizunak uzten badiote, Kongregazioko Elizkizun guzietara joan bear du.

7. Mingaña beti garbi erabiltzeko asmo sendoak egin bear ditu, asmo eder oek maiz befituaz.

8. Izketa loi ta lasayetatik alde egin bear du, era gaizto oiek betirako oso utziak.

9. Itz gaiztoen bat entzuten baidu, bere biotz guziz esan beza: Agur Maria garbi-garbia.

Elizak eskatzen duan bezela eta bear dan baimenarekin jaririk dagoan Kongregazioan irabazi litezkean barkapenak.

1. Aita Santuak emanik dauka barkapen osoa, konpesatu, Jaun-artu, eta bera dagoen Eliza bisitatuaz eta Aita Santuaren gogoaren alde ezazuaz.

2. Barkapen osoa Kongregazioan sarturik daudenentzat, beren azkenengo gaitzan konpesatu ta Jaun-artuaz, eta au ezin balute Jesus'en izen santua mingañez edo biotzez esanaz.

3. Barkapen osoa Kongregazioko jayegun aundienean aurre-eguneko aratsaldetik egun artan, eguzki sartze arte, konpesatu, Jaun-artu eia Eliza bisitatuaz.

4. Zazpi urteko ta beste zazpi berogeia egun-aldiko barkapenak Obispo edo Gotzai jaunak izendatzen dituzten egunetan; oek dira Ama Birjiñaren Jayotze, Erakuste,

Elizan sartze eta Zeruratu zan egunak.

5. Irurogei egun, edozein egin-kizun on, pekatuen damutasunaz egiñezkero.

6. Barkapen osoa, ilean bi aldiz berak aukeratzen duten egunetan konpesatu, Jaun-artu eta edozein Elizara agertu-aldi bat egiñaz eta Aita Santuaren gogoaren alde ezazuaz.

Eta gaxo daudelako gauz oek konpesoreak oen ordez beste batzuek agindu litzaizkike. Barkapen oek betirako emanak daude ta Garbitoki edo Purgatorioko animen alde eskeñi litezke.

7. Kongregazioko ildakoen alde meza ematen dan guzian Kongregazioko Eliza aldare guztiak nekazkadun edo pribilejiatuak dira.

Ama guztiz santuaren bere sortze garbian bisitatzeko esan bear diran otoitzak.

—:==:—

Bedeinkatua eta alabatua izan dediā Ama Birjiñaren sortze garbia.

Gurutze santuaren señaleagatik.....

AGUÑA.

—

Donetsi bedi ta goitu
Zure Sortze txit garbia;
Bada Irukoitz deun aundia
Zeraen edeñaz da asetu.

Zeru zatia zeran zu!
Ematen dizut gorputza,
Gogua, biotz, bitzitza;
Naizen guzti au zuk artu!
Ama, eruki naitzazu!
Eta iñoiz nitzaz ez aztu!

(Aldiko 300 eguneko barkapena. Purgatorioko Animai eskeñi lezayekena da, X'gañen Pio'k.)

LENBIZIKO ESKAERA.

garbitasuna iristeko.

—:—:—

Ar zazu, gure Ama ona, nere gaztetasuna zure amatasunezko itzalpean: azkatu gaitzazu ni eta nere lagun guztiak etsayak jartzen dizkigun korapilo guzietatik; gure aragi argal eta griña gaiztoen alegin eta gaizbide guzietatik ni ta nere lagun guzien alde zure Seme Jainkoari eska zayozu; bada gaurdanik zure egizko alaba izateko itza ematen dizut. Egizko garbitasun bat beregandik iritxi iguzu eta onela biotzak beñere itzaliko ez dan zугanako naitasunezko sugarretan beti-betiko biziko dira.

Olaxen izan dedila.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

BIGAÑEN ESKAERA

*estadua aitzeko garayan bear
deguna asma dezagun.*

—:—:—

Ixuri ezazu nere gañera zeruko argitasuna ikusi dezadan zer dan ta nola egin bear dedan Jainkoaren gogoa eta zurea; nere buruñta biotza argitu itzazu garbi asmatu dezadan zer bizibide aukeratu bear dedan; bide zuzen au asmatuezkero zorionera berak eramango nualako: Eskuratu zaidazu ba, Jainkoaren laguntza nere bizitz laburko egunetan ta bear dedan bizibidea eramanz betiko zoriona irabazi dezadan.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

IRUGAÑEN ESKAERA

*Ama maitearen alaben talde
edo Koruak ugaritu ditezen.*

—:==:—

Ugaritu itzazu zure sortze garbi eta kutsuaren izpirik gabea gortzen ari diran zure alaben talde oek, egizko itufiaren antzekoak beti izan ditezen.

Ezagutu dezatela zein edeñan dan eta Jainkoak zenbat maite duen biotzeko garbitasuna, eta beretatik batzuek eskontzara deituak badira emazte on eta zintzoak izan ditezela, Jainkoaren beldurpean bizirik, ondorengo garbi ta onak gure Jau-nari eskeñi al izan dezaten.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

LAUGAÑEN ESKAERA

*Peccatoriak bide onera etori
ditezenez.*

—:—:—

Gaiztakeri guzietan naspilaturik eta gaiztakerietako bide okerretan galdurik betiko galerara laisterka dijoazen gure aizpa maiteak, Ama gozoa, bideratu itzazu: beren biotz ilunpetuak argituko dituen argie-
rañu bat bialdu zayezu, beren ibileren azkena negargaña dala ezagutu dezaten; indartu eta lagundu egiezu beren ibilera oker-
rak, Jainkoaganako ibilera zuze-
netara artu dezaten, gero betiko zorionean guziok arkitu gaitezen. Olaxen izan bedi.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

BOSGAÑEN ESKAERA.

Jainkoaren aseíea gutxitzeko.

—:—:

Aragizko pekatuak Jainkoaren zofoztasun ta aseíea zenbat aldiz irazeki ote du! Gaizkeri au alde guzietara zabaldu ikusi zuanean Jainkoa gizona egiñaz damutu zan, eta udalde izugarí bat bialdurik Noe ta bere etxekoak kenduezkerro beste guzik ito egin ziran; zortzi bakaírik bizirik geratu ziran; gaizkeri ofegatik Jaunak eíe zituan Sodoma ta bere inguruko beste eíi batzuek, bere baíengo guziakin; griña gaizto onek galtzen du mundua..... eta betetzen du geztoki edo inpernua.... Gure Ama garbia! gure eskaerak zuzendu, indartu eta batu itzazu Goiko Jaunak biotz-biotzetik diadaíez eskatzen dioguna entzun dezan, itzali dezala, aíen, pekatu galgaíi onen sua ez Sodomataíai bezela goitik botatako

kiskalgariaz, baizikan guztiak bereganatzen dituan Jainkoaren maitetasunezko txinpart gogoaz; ez guziok itoko gaituan udaldez, baizik goiko laguntz ederearen ur osasungari, piztu eta indartuko gaituenaz, zure antzekoak biotz eta egintzetan izan gaitezten.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

OTOITZA.

Garbitasuna bera zeran Ama txukuna, Ama biotz bera, zuk ongi ezagutzen dezu zenbat zorigaiztotan arkitzen geran, eta gure argal-tasunagatik, zure laguntzik gabe, ayetatik ezin atera gindezkela, iguzu bada zure indaia eta emengo gaiztakerietan kutsutugabe, egizu, zure eskaiaz lagundurik betiko zoriona iritxi dezagun. Olaxen izan dedila.

*Gure laguntzara Jainkoaren
Ama are geyago beartzeko
esango da letani au.*

Kyrie eleyson.
R. Kyrie eleyson.
Christe, eleyson.
R. Christe eleyson.
Kyrie, eleyson.
R. Kyrie eleison.
Christe, audi nos.
Christe exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus,
Fili Redemptor mundi Deus,
Spiritu Sancte Deus,
Sancta Trinitas unus Deus,

Sancta Maria,
Sancta Dei genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater Castissima.
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata,
Mater amabilis,

Miserere nobis

Orapro nobis

Mater admirabilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes Sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua Cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum.
Refugium peccatorum.
Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum.

ORA PRO NOBIS

Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originalis con-
cepta.

Regina sacratissimi Rosarii,
Regina Pacis,

℣. Agnus Dei, qui tollis pecca-
ta mundi.

℞. *Parce nobis, Domine.*

℣. Agnus Dei, qui tollis pe-
ccata mundi.

℞. *Exaudi nos Domine.*

℣. Agnus Dei, qui tollis pe-
ccata mundi.

℞. *Miserere nobis.*

℞. Ora pro nobis Sancta Dei
genitrix.

℣. Ut digni efficiamur promi-
ssionibus Christi.

Zein edeſa zeran nere Ama
maitea garbi-garbia kutsu gabea,

zure^m soñeko-usayak beste usai guztiai eragiten dio.

OTOYA.

Gure Jaun eta Jaungoikoa, eskatzen dizugu, Ama guztiz ona pekatuaren kutsugabe alde auzez gorde zenduen bezela, ama laztan onen bitartez eman eiguzula guri ere zugaratzeko laguntza. Olaxen izan dedila.

Orain emen bakoitzak eskatuko du beaŕean arkitzen diran bere lagun^{en} alde, il diranen alde eta erlijio santua alde guzietara zabaldu dedin

ESKAERA AU

Zure laguntzara biurtzen gera Jainkoaren Ama deuna, ez, aŕen, entzungabe utzi gere beaŕetako eske ta negaŕak: izan zaite bada gure zori txar^{etan} guzion laguntzale ta azkatza^{lea}.

Agur, eŕegiña, eŕukizko Ama, bizitz, gogotasun eta gure itxodopena; zuri deyez gaude Eba'ren

ume besteñituak; zure gogotan gaude negañez, malkozko ibar onetan; gure bitartekoa zeranez-kerro zure begi efukitsu oek gugganontz itzuli itzazu eta erbeste au igaro ondoren, zure sabelak sortua, Jesus, erakutsi egiguzu. Biotz bera! Biotz ona! Maria gozoa!

V. Jainkoaren Ama ona gure aldez eskatu ezazu.

R. Jesukristo'ren aginduak iritxi ditzagun. Olaxen izan dedila.

AZKEN-AGUÑA.

Jainkoaren Ama ona, zure alabatzen eskeintzen naitzazu eta eskeintzen dizkizut gañera nere begi, belari mingain eta eskuak, itz batez esateko, nere gorputza, anima ta naizen guzia eta eskatzen dizut beñere gaiztakeririk ez egiteko laguntza. Olaxen izan bedi.

Ama, ona emen zure alaba.

Ama, ona emen zure alaba.

Ama, ona emen zure alaba.

Zugan, nere ama gozoa, nere uste osoa jañi det, eta ez naiz egundño lotsaturik geldituko.

Agur Maria guziz garbia.
Sortu zññan pekatu gabia.

Bedeinkatua eta alabatua izan dedila Maria guziz onaren soferara oso garbia. Olaxen izan bedi.

Seigañen Pio Aita Santuak eman zituan eun eguneko barkapenak aurreko *Bedeinkatua eta alabatua....* esaten dan bakoitzeko; beste eun egunekoak *Zure laguntzara biurtzen gera....* ta *Salbea*, esaten dan bakoitzeko; eta Zazpigañen Pio'k irureun egunekoak letania esaten dan bakoitzeko.

Jainkoaren Ama ona, zure alabatzat eskeintzen naitzazu asten dan añek, ditu emanak mila eguneko barkapenak.

AMA BIRJIÑAREN

Soñera oso garbiari, edo bere kongregazioko alaba maiteak beren
Ama gozo eta bitartekoari
zuzentzen diozkaten

KANTAK

*Emen gauzkatzu Ama
Zure itzal gozoan
Egizu gu arkitzea
Beti zure ondoan.*

1

Guztiok gu biltzen gera
Zure laguntz gogora,
Garbia sortu ziñala
Esanaz txit gogora:
Alaxen, bai, sortu ziñan
Uso zuri argia,
Jaunak zuri deitzeraño
Edeña eta garbia.

2

Argitu ezazu Ama
guzion burua
Jaunak nai duen bezela
Artzeko estadua;
Oñekin egin dezagun
Zintzotzeko modua,
Zurekin beti-betiko
Izateko zerua.

3.

Ugari ezazu Ama
Zure gazte taldea,
Egin dedin ayekin
Zeruko muntegia;
Munduan eman dezaten
Guziri argia,
Gordeaz aingeruzko
Birtute garbia.

4.

Zuzendu itzatzu Maria
Pekatori gaxuak,
Utzi ditzaten bertatik
Bere bide galduak;
Zure itzal ederean
Eutsi ezkutatuak,
Beragana ditzan gero
Zure Seme Jainkoak.

5

Mila esker *Ereğiña*
Ematen dizkitzugu,
Artu gaituzulako
Zure itzalpean gu;
Azkenik eskatzen degu
On bat berdingabea,
Jesusen emazte eta
Zure alabak izatea.

Sortze garbiko *Ама'ри* kantak.

KANTARTEAK

*Atoz, atoz Birjiña,
Guri laguntzera;
Atoz zeruko ateak
Guri irikitza.*

KANTALDIAK.

1.

Zure laguntzarekin
Ni zure Soñera
Birjin Ama maitea
Noa kantatzera;
O zein edera zeran
Gure lirioa,
Lore guztien artean
Añena jayoa!

2.

Atoz, atoz etsaya
Azkar garaitzera,
Atoz Zeruko ateak
Guri irikitza;
Oñazpiraturikan
Luzbel'i burua
Gaur garaitutzen dezu
Betiko impernua.

3.

Eba'k galdu ziguna
Zuk guri iritxirik,
Zeruko jauregiak
Dauzkagu irikirik;
Betikoera guzian
An zu goratzea,
Egindazu azkenikan
Ama txit maitea.

*Kasimiro Santuak Ama Birjiñari
latiñez egin zion kanta, euskeraz.*

1.

Kanta zagun
Danok lagun
Gogoz beti Birjiña
Bere jayak
Ta doayak
Goitirik alegiña.

2.

Izuturik
Ta añiturik
Bere goitasuna
Birjin bera
Biotz-bera
Ots-aunditu ale-
giña.

3.

Bai lagunak
Sinisdunak
Goazen gure A-
magana.

Griñetatik
Gaitzetatik
Azka gaitzan laz-
tana.

4.

Ezin da ere
Kanta bere
Alabantzak bear
aña,
Ta utzitzea
Ixiltzea
Da esker gaizto-
ko ordaña.

5.

Au maitatu
Ta goratu
Bear degu al dana
Bigundurik
Eregurik
Santuenak argana

6.

Andreetan
Guztietan
Zu zera ederen;
Izan ziran
Ta eingo diran
Gauzetan goyen.

7

Gure eskari
Ta kantari
Begira aren ero-
so
Barkatuak
Zuruzkoak
Egin gaitzatzugu
oso.

8

Ai Birjiña
Zu ez-paziña.
Nork iriki Zeru-
rik?
Ba, ez du zugan
Ez bai gugan
Ez, etsayek, esku-
rik.

9

Negarétan
Naigabeetan
Zu zera poz ani-

mai

Gorde beti
Gu gaitzetik
Datorkiena gaiz-
toai.

10

Pake osoa
Betikoa
Indazu iritxitzea;
Ta artarako,
Garatarako,
Leitzetik azkatzea

11

Garbi-garbi
Nola oskarbi,
Zeruba gabaz ur-
din,
Bide onean
Bertutean
Eidazu bizinadin.

12

Zintzotasun
Santutasun
Guztian iraundu-
rik
Izateko
Zure antzeko
Gorde ni pekatu-
tik.

AMAREKOA.

Nai nuke beti, O Ama, birjiña
Nere Ama gozo maitea!

Zure nayaz txingar egiña
Nere biotza eukitzea.
O nere ezta, nere Eregiña!
Naizun guztia suturik,
Ai banegoke zure maitetzan
Aingeru danak gaindurik,
Era danetan ta egiñalean,
Ta zu maitatzen urturik!!

V. Zure sortzean Birjiña Santua,
txit garbia izan ziñan.

R. Zuregandik jayo zan Aitaren
Semeari gure aldez eskatu za-
yozu.



Beneditar

129